

HIZKUNTZA BALIABIDEAK

Aisialdia – Ocio.
Denbora librea – Tiempo libre.
Eskolaz kanpoko ekintzak – Actividades extraescolares.
Etxeko lanak – Deberes.
Gustuko jarduera – Actividad agradable.
Hezi, heziketa – Educar, educación.
Jolastu, jolasean ibili – Jugar.
Judo – Judo.

GAIA AZALTZEKO ESALDIAK

- *Gaurko umeak estresatuta bizi dira, eskolako orduz gain eskolaz kanpoko ekintzak egin behar dituztelako.*
- *Umetan, aditu guztiek diote batez ere jolasean ibili behar dutela lagunekin.*
- *Nire ustez, eskolaz kanpoko ekintzak egitekotan, umeekin hitz egin eta adostu behar lituzkete gurasoek.*
- *Ez du zentzurik umeak ingeleseko klase partikularretara bidaltzeak, eskolan ere ikasten baitute.*
- *Ez dut gaizki ikusten umeak hezteko, jarduera batzuk probatzeko aukera ematea; esaterako, musika, dantza, eta abar.*
- *Eskolako jardueren osagarri gisa, errefortzu bezala aukeratzen dituzte gurasoek jarduera hauek: ingelesa ikastea, musika... Horregatik, egokiak direla iruditzen zait.*
- *Batzuetan umei interesei edo gustuei baino gehiago begiratzen diete gurasoek bere interesei. Modu horretan, umeak horrelako zerbait egiten duten bitartean, beraiek denbora libre gehiago dute lasai egoteko.*

EZTABAIDARAKO ESALDIAK

- *Nik musika, ingelesa eta jolasean ibiltzea aukeratuko nituzke.*
- *Neskentzat egokia iruditzen zaizkit horiek, baina ez mutilentzat. Mutilentzat, judo aukeratuko nuke musikaren orde.*
- *Nik pintura baztertu egingo nuke. Hori bakarrik aukeratuko nuke umeak berak eskatuz gero.*
- *Ados nago zurekin / Bat nator zurekin / Ados nago zurekin, baina... / Orokorrean bat nator, baina, hala ere...*
- *Ez nago ados / Ez nator bat zurekin / Nik ez dut horrela pentsatzen / Nire ustez, berriz, / Nik justu kontrakoa pentsatzen dut.*

Gai honen inguruan IKASBIL atarian aurkituko dituzun beste material batzuk:

481734 [Umeen denbora librea antolatzen](#)

27856 [Jolasa eta eskolaz kanpoko ekintzak](#)

26953 [Eskolaz kanpoko ikastaroak](#)

30092 [Haurrak](#)